

Ontzigintza Hondarribian

ITSASOA ESKUTIK ESKURA

Itsasoa gobernatzea ezinezkoa izaki, itsasoa norbera nola gobernatu asmatzean jarri dute adimena ozeanoari begira sortu, hazi eta bizi diren herriek. Berdin egin dute Hondarribiak eta euskal itsas ondoko beste herriek. Ongi joan zaie gainera, eta mende luzez ontzigintzan trebatu ziren puntako ekoizle bihurtzeraino. Etorkizuna, baina, itsasoa bezala, laino dago.



TESTUA ETA ARGAZIAK:

Aitor Kaltzakorta

@kaltzakorta

Sona handiko ontzigileak eta ontziak sortu eta landu dira Euskal Herriko kale, portu eta ibai ertzetan. Hondartza eta labarretatik harago barnealdea ere ontzi eraikuntzari begira hazi zen garai luze batean, historia, kultura, gizartea eta ekonomia gidatu zituen sektore indartsua belaunaldiz belaunaldi, mendez mende, eskutik eskura iraunaraziz.

Alta, sektorea ez da indartsu dagoneko, eta ez du ekonomiaren motor edo bela funtziorik betetzen. Iraun egiten du. Areago, iparra bilatzen ari dela esan daiteke, arrantza egiteko kupoak eta beharrezkoak diren beste hainbat neurri urruneko bulegoetan arrantzatu behar diren garaiotan. Itsasora ateratzeko itsasontzi on bat baino gehiago behar da.

Probintziako zentro nagusia

Hondarribiak protagonismo berezia izan du alor honetan. Lourdes Odriozola Oyarbide historia doktoreak 2003an Hondarribiko Udalarekin batera argitaratu eman zuen *Ontzi eraikuntza Hondarribian 1203-2003* lan mardulak xehe-tasun handiz kontatzen du iragan zortzi mendeotako emaria.

XVIII. mendera bitartean Lezo eta Pasai Donibaneko erriberetan egon ziren herrialdeko ontziola garrantzitsuenak eta horrek, Odriozolak jasotakoaren arabera, "Hondarribia Aro Modernoan

probintziako ontzi ekoizpen zentro nagusietako bat izatea eragin zuen".

Garai horretako petrolioak balearen koipea zen, eta hondarribiarrak balea arrantzale bikainak ziren. Hasieran gehienez hamar metro eta bost arraunaridun txalupa txikiak erabiltzen zituzten, baina baleak euskal kostaldetik urruntzen joan ahala arrantzaleek ere urrutiago -Ternua kasu- joateko ontziak egin zituzten.

Garai horretan ontziola guztiak hiri-bilduko harresitik kanpo zeuden: "Santa Mariaren ate inguruko hareatzatik La Roca izenez ezagutzen den tokiraino zeuden ontziak eraikitzeak karroak". Horiez gain, Errota zaharreko ontziola -1612ko dokumentu batean ageri da-, Erriberako ontziola -1545ean Sancho Alkiza kapitainak nao bat eraiki zuen bertan-, Lonjako edo Puntaleko estalpea, Magdalenako ontziola, Bortalabor-dakoa, Bizkaia auzoko Errege Ontziola, Irungo ontziola eta Lezo eta Pasai Donibaneko ontziolak zeuden.

Euskal ontzigintzaren urrezko garai horretan ontzi mota ugari egin zen, hala nola galera (XVI. mendean), naoa eta galeoia (XVI eta XVIII), nabioa (XVIII)... Aurrerago etorri ziren fragata, bergantina, lega, batela, txalupa, gabarra, trainerua, txanela eta abarrak. Ontzi garrantzitsu asko egin zen urte horietan Hondarribian.

Garai berriak

Hondarribiko lehen ontzi lantegi modernoak Aseginolaza ontziola izan zen, San Pedro kofradiaren parean. 1928an egin zuten aseginolazatarrek bigarren pabilioia, eta makinaria asko eta askotarikoa biltzea lortu zuen. XX. mendean Urtizberea, Errazquin, Ecenarro, Elzo, Zuzuarregi, Lekuona, Garin edota Sagazazu abizenak batu izan dira sektorera. Hondarribian, baina, batez ere bi dira XXI. menderaino ontzi eraikuntzaren lekukoa eraman duten abizenak: Olaziregi eta Iridoi.

Raku bezala ezagutzen zuten Juan Iridoy 12 urterekin hasi zen Aseginolaza ontzian ofizioa ikasten. Gerratik bueltan erriberako tailer propioa egitea erabaki zuen. 40 urtez egin zuen lan bertan 1972an erretiroa hartu eta Jose Luis eta Jose Maria semeei lekukoa pasa arte. Egun Hondarribiko Arraun Elkarteak dagoen pabilioia eraiki eta bertan jarraitu zuten lanean beste hiru hamarkadaz. Belaunaldi berriak egurrezko arrantzontziak eta poliesterezko batzuk ere egiten zituen arren, konponketek pisu handia zuten Rakutarren jardueran ontziola itxi arte.

Lázaro Olazireguik Iridoyk baino pare bat urte geroago sortu zuen bere ontziola, Pampinot kalean. Honek ere Aseginolazan ikasi zuen ofizioa. Almirante Alonso kaletik pasata Amute auzoan egin



zuen pabilioia ondoren. 1965-1966ko Bartzelonako Erakusketa Nautikoan poliesterezko ontziak ikusi ostean, Lazaroren semeak –Ignacio eta Ramon– material hori erabiltzen hasi ziren motor txikiak eta txalupak egiteko. Ehunka hako ekoiztu zituzten urte horietan.

1991ra arte egin zuten lan elkarrekin Ignaciok eta Ramonek. Ignaciok eta bere seme Lazarok Hondarribian segitu dute, Gabarrarin instalatu ostean, eta poliesterra landu dute batez ere motor txikiak zein baxurako barkuak egiteko.

Hurrengo belaunaldia

Aitonaren izena daraman Lazarok aitarengandik ikasi zuen ofizioa 13 urtekin tailerrean hasita. Ohikoa izan da

eskutik eskura egindako transmisioa. Rakutarrei ere aita tailerrean ikusita sortu zitzairen ofizioarekiko afizioa. Arotzak ziren denak, pazientzia, egiten zekitenarekiko pasioa, ausardia, esku fina eta begi ona zituzten lanerako tresna.

Garaioak, baina, irristakorrak dira. Sektorea ahul dago, noraezean, ontziak egiteko laguntzak bukatu dira eta belaunaldi berriak batzeko zailtasunak daude. Lazarok ez du uste ondorengoak ontziolan lanean arituko direnik, baina badu esperantza.

Enrike Lekuona ontzigintza injenieruak Iridoi ontziolan egin ditu bere diseinuetako asko. Azkenaldian *Arrantzaleen jakinduria* hitzaldiarekin dabil, ontzigileen, arrantzaleen eta armado-



Ezkerreko argazkian, Ignacio eta Lazaro Olaziregi Hondarribiako Gabarrariko pabilioian. Goian, Sustrai elkartearen arduraean Bentako karroan atontzen ari diren 'Mariñel' itsasontzia, Ecenarron muntatua.

reen artean sortzen eta transmititzen joan den jakinduriaraz eta egiteko moduez mintzo.

Bertako arrantzaren eta ontzigintza-reen etorkizunaz kezka ageri du: "Hemen dugun arrantza selektiboarentzat garai txarrak dira eta mundura atera behar dugu negozio eredu berriak bilatzeko. Ez hori bakarrik, Euskal Herrian badiugu baldintzak berriro ere puntako ontzigintzan aritzeko, baina apustua eta inbertsioa falta dira. CAF edo Irizarren antzera berrikuntzarekin saiatuz gero egoera irauli daiteke". ■



Hondarribia euskaraz bizi



Hondarribiko Udala

